



Munduko Hizkuntza Ondarearen
UNESCO Katedra

Cátedra UNESCO
de Patrimonio Lingüístico Mundial

UNESCO Chair
on World Language Heritage



[2013 urteko

JARDUERA-MEMORIA]

AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. 2013 Urteko jardueren laburpena
3. Jarduerak
 - 3.1. Proiektuak
 - 3.2. Formazioa eta Zabalkundea
 - 3.2.1 Katedrako kideen lankidetzaren titulazio ofizialetan
 - 3.2.2. Katedraren antolatutako ekitaldiak
 - 3.2.3. Katedraren parte hartzea hitzaldi eta kongresuetan
 - 3.3. Katedraren presentzia hedabideetan
4. Argitalpenak

1. SARRERA

2006ko abenduan sinatu zen UNESCO eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) arteko hitzarmena Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra sortzeko.

2007ko otsailean, UPV/EHUko errektoreak Itziar Idiazabal Gorrotxategi, UPV / EHUko Euskal Filologiako Katedraduna, izendatu zuen Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedraren zuzendari.

2007ko urrian Katedra UPV/EHUko Zubiria Etxean kokatzen da (Agirre Lehendakariaren Etorbidea 81, E-48015 Bilbo).

UNESCO Etxea-ko diru ekarpenari esker, Katedraren jarduerak 2007-2008 ikasturtean hasten dira. Harrez geroztik Katedrak hedapen, formakuntza, ikerketa eta sentiberatze egitasmoak bideratzen ditu erakunde ezberdinen laguntzari esker.

Katedra, gaur egun, **Batzorde tekniko iraunkorra** eta **Aholku batzordea** osatzen dute.

2013ko Batzorde tekniko iraunkorra

- Itziar Idiazabal (UPV/EHU), Euskal Filologia Katedraduna.
- Ane Ortega (Begoñako Andra Mari Irakasle Eskola), Hizkuntzalaritzan Doktorea eta Ingeles Filologiako irakaslea.
- Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra), Euskal Filologian Lizentziatua eta hizkuntza aniztasunean aditua.
- Andoni Barreña (Salamanca Unibertsitatea), Euskal Filologian Doktorea eta hizkuntza aniztasunean aditua.
- Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea), Hizkuntzalaritzan Doktorea eta Euskal Filologiako irakaslea.
- Estitxu Aranbarri, hizkuntza heziketan ikertzailea.
- Margareta Almgren (Durangoko Batxiler Institutua), Hizkuntzalaritzan Doktorea eta Ingeles Filologiako irakaslea.
- Ines Garcia Azkoaga (UPV/EHU), Euskal Filologian Doktorea eta hizkuntza irakaskuntzan aditua.
- Gontzal Aldai (UPV / EHU), Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila.
- Jessica Domínguez, UNESCO Etxea-ko Kultura eta Garapena Sailaren arduraduna.
- Mikel Mendizabal (Garabide Elkarte), hizkuntza eta biologia aniztasunean ikertzailea.

- Mikel Etxaburu (Mondragon Unibertsitatea), Euskal Filologian Doktorea eta hizkuntza irakaskuntzan aditua.
- Ibon Manterola, (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketetan Doktorea.
- Manel Pérez-Caurel (UPV/EHU), Hizkuntzalaria eta hizkuntza gutxituetan aditua.

Aholku batzordea

- Xabier Aierdi, UPV /EHUko Soziologia Katedraduna.
- Maria Jose Azurmendi, UPV /EHUko Soziolinguistika Katedraduna.
- Maitena Etxebarria, UPV /EHUko Hizkuntzalaritza Orokorreko Katedraduna.
- Patxi Goenaga, UPV / EHUko Euskal Filologia Katedraduna.
- Ruper Ormaza, UNESCO Etxea-ko Lehendakaria.
- Mikel Mancisidor, UNESCO Etxea-ko Zuzendaria.
- Ane Ortega (Begoñako Andra Mari Irakasle Eskola), Hizkuntzalaritzan Doktorea eta Ingeles Filologiako irakaslea;
- Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra), Euskal Filologian Lizentziatua eta hizkuntza aniztasunean aditua.
- Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea), Hizkuntzalaritzan Doktorea eta Euskal Filologiako irakaslea.

2. 2013 URTEKO JARDUEREN LABURPENA

Euskal Herriko Unibertsitateko Munduko Hizkuntza Ondarearen Katedrak honako jarduerak burutu ditu 2013ko urtean:

- Hizkuntza gutxitudun erkidegoekin lankidetzaren beraien jatorrizko hizkuntzen normalizazio prozesuan. Katedrak ekarpen garrantzitsua jaso zuen Eusko Jaurlaritzatik (Hizkuntza Politika) embera hizkuntzaren normalizazio eta bertako irakasleen formazio proiektua burutzeko, Chocó herrialdean (Kolonbia). Aldi berean, Kolonbiako Cauca herrialdean ere formazio lanak burutu ditu, besteak beste.
- Ezagutzaren zabalkunde arloan, hainbat jardunaldi antolatu ditu eta besteek antolatutako kongresu eta ikastaroetan parte hartu du, beti ere hizkuntza aniztasunaren aldeko sentiberatasuna eta irakaskuntza eleanitzerako prestakuntza bultzatuz.
- Hizkuntza aniztasunari buruzko ikerketa, bertakoa eta mundu mailakoa, aniztasun hau ikus dezagun ekintzetan, aniztasunaren galera edo ahulezia egon ez dadin. Elebitasuna eta eleaniztasuna, hezkuntza programa pertsonal eta gizarteko programa bezala, Katedraren ardatza dira bere ikerketa proiektuetan eta baita ere bere lankidetzaren programetan.
- Etengabeko immigrazioa dela eta, munduko hizkuntza aniztasunari buruz eta Euskal Erkidegoko aniztasunari buruz biztanleria kontzientziatzeko helburua duten hitzaldi eta jardunaldiak zein erakusketetako antolakuntza eta parte hartzeak.
- Katedrako kideek tokiko eta nazioarteko hitzaldi eta jardunaldietan parte hartu dute, Ikerketa Taldeak izan dituen zenbait ikerketetako emaitzak partekatuz. Parte hartze hauei esker Katedraren sarea zabaltzeko egin da nazio eta nazioarte mailan.
- Ahalegin berezia egin da katedraren ekimenak hedabideetan, sare sozialetan eta alorreko argitalpen zientifikoetan ager daitezen.
- Lankidetzaren hitzarmenak sinatu dira hainbat erakunderekin hizkuntza lankidetzaren garapeneren irizpide bezala hartua izan dadin. 2013. urtean Garabide Elkartarekin, Soziolinguistika Klusterrarekin, Leioako Udalarekin eta Berrizko udalarekin sinatu dira hitzarmenak.

3. JARDUERAK

3.1. Proiektuak

i. Embera hizkuntzaren sendotzea hezkuntzan.

Proiektu hau Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra eta Kolonbiako FUCLA (Fundación Universitaria Claretiana) Unibertsitatearen arteko lankidetzaren proiektua da, Kolonbiako Chocó herrialdekoa. 2013 urterako "Diplomatura en Etnolinguística" programa prestatua genuen FUCLA eta OREWA Indigenen elkartearekin batera, baina bertako -Quibdó herriko- azken orduko ezintasunak medio ez da bideratzerik izan. 2014 urterako atzeratua izan da.

ii. Cauca (Kolonbia) herrialdeko nasayuwe hizkuntzako irakasleen prestakuntza.

Egitasmo hau Garabide Elkartearekin batera egiten da, beraiek 2010 urteaz geroztik duten harremanari esker. 2013 urtean katedrak bi ikastaro antolatu ditu uztailean, Mendizabal eta Erasun irakasleek bideratuta. Eta abuztuan Garabidek antolatutako beste bi ikastaroetan ere parte hartu du. Katedraren parte-hartzea posiblea izan da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren laguntzari esker, eta Leioako eta Berrizko Udalekin ditugun hitzarmenei esker.

iii. Garapenerako Lankidetzaren proiektuetan hizkuntza-irizpidea txertatzeko proposamena.

Egitasmo hau UNESCO Etxea, Soziolinguistika Klusterra eta Garabiderek batera bideratu da, nolabaiteko gida modura garapenerako lankidetzaren egitasmoetan hizkuntza aniztasunaren irizpidea kontuan hartua izan dadin. Bestelako oinarrizko irizpide nagusiekin batera, hala nola genero berdintasuna edo garapen iraunkorra, lankidetzaren bideratzen den herrialdeetan hizkuntza aniztasuna eta bereziki hizkuntza gutxituen egoera kontuan hartua izateko gida proposatzen da.

iv. Beningo bariba hizkuntzaren normalizaziorako teknikarien prestakuntza.

Egitasmo hau "Vie pour tous" (Parakou, Benin) gobernuz kanpoko erakundearen eskaera batetik sortu zen, hain zuzen baribatarrak bere lurraldean bere hizkuntza (bariba) eskolatu eta erabilera sustatzeko asmoarekin. Garabide Elkarteak antolatzen duen "Aduit" programan parte hartzeak ziren bertako irakasle bat eta kazetari bat, baina ez dugu diru-laguntzarik lortu prestakuntza horretan parte hartu ahal izateko. 2014 urtean saiatuko gara berriro.

v. Elebitasuna eta eleaniztasunaren garapena haurtzarotik heldutasunera bitartean euskaraz eta haren ondoko hizkuntzetan (FFI2012-37884-C03-01 / IT676 -13).

Ikerketa proiektu hau HIJE (Hizkuntzaren Jabekuntza eta Erabilera) ikertaldeak bideratzen du MINECO eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzaz 2012-2015 urte bitartean.

vi. Murgilketa bitartez euskaldundutako hiztun berriak: jarrerak eta identitatea (FFI2012-37884-C03-03).

Proiektu hau Katedrako kide diren ikerlariak Deustuko unibertsitatara atxikita garatzen da, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta MINECOren diru-laguntzarekin 2012-2015 urte bitartean. Estibaliz Amorrortu da ikerlari nagusia.

Proiektu hau europar COST *New Speakers in a Multilingual Europe: Opportunities and Challenges* (ISCH COST Action IS1306) proiektuan integratu da, Bernadette O'Rourke-k zuzenduta eta 2013ko maiatzaren 15ean onartua. Esti Amorrortu-k eta Ane Ortega-k "Expert" eta "MC Substitute" gisa 1. lerroan (*Indigenous minority languages*) parte hartzen dute.

vii. Guatemalako Unibertsitate Publikoan Heziketa Elebidun eta Interkulturalaren erakundetze proiektua.

Guatemalako Unibertsitate Publikoak, Universidad San Carlos de Guatemalak (USAC), *Mugen Gaietik* GKE-ak eta Fundación Rigoberta Menchu *Temuc* Fundazioak eskatuta, Andoni Barreña katedrakideak Guatemalan ebaluaketa lana egin du urriaren 25etik azaroaren 10era hainbat unibertsitate erakundeetan, Heziketa Elebidun eta Interkulturalaren egoera aztertze eta ebaluatze.

viii ELEBIDUN Egitasmoa. *Etude des compétences linguistiques chez les élèves de l'école primaire dans le cadre d'une scolarité bilingue (basque-français)*. IKER (UMR5478) Baiona

Frantziako Conseil Général des Pyrénées Atlantiques erakundeak eta Euskararen Elkarte Publikoak diruz lagunduta, 2012-2014 urteetan burutzen ari da egitasmo hau Lehen hezkuntzako haurren heziketa elebidunaren frantses eta euskarazko gaitasunak aztertze aldera. Jon Casenave da ikerlari nagusia eta Itziar Idiazabal eta Ibon Manterola ikertalde zientifikoko kide dira.

3.2. Formazioa eta Zabalkundea

3.2.1. Katedrako kideen lankidetzat titulazio ofizialetan

- **Amorrortu, E. & Ortega, A.:** "Erdaldunen euskararekiko jarrerak". HIZNET Programa (Hizkuntza Plangintza Online Graduondoa). Eusko Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos-ek (Asmoz Fundazioa) eta Euskal Herriko Unibertsitateak (Soziologia Saila) antolatua. Iraupena: 10 ordu. Urtea: 2012-2013.

- **Aldai, G.:** "Euskara hizkuntz tipologiaren eremuan" Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza Masterra. Ikasturtea 2012-2013.

- **Barreña, A. :** "Adquisición de lenguaje y aprendizaje de la L2" (Bigarren Hizkuntzaren jabetasuna eta ikaskuntza). Salamancako Unibertsitatea. Gaztelania atzerriko hizkuntza gisa Masterra. Urtea: 2012-2013

- **Barreña, A.:** "Hizkuntza gutxituak nazioarte mailan". HIZNET Programa (Hizkuntza Plangintza Online Graduondoa). Eusko Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos-ek (Asmoz Fundazioa) eta Euskal Herriko Unibertsitateak (Soziologia Saila) antolatua. Iraupena: 10 ordu. Urtea: 2012-2013.
- **Barreña, A.:** Jatorrizko Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Tituluan (Mondragon Unibertsitatea - Garabide Elkarte) bi ikastaro: "Estrategías para el desarrollo de la educación en las lenguas originarias" eta "Experto de Estrategias en la Revitalización de la las Lenguas Originarias". Iraupena: 40 ordu. Urtea: 2013.
- **Idiazabal, I., Manterola. I. & Garcia-Azkoaga, I.:** "Hizkuntza aniztasuna eta hizkuntzen didaktika". Máster ofiziala: Euskal hizkuntzalaritza eta filologia masterra. Hizkuntzalaritza aplikatuko funtsezko ikastaroa II. UPV/EHU. 2012-2013. 4,5 kreditu.
- **Idiazabal, I.& Manterola. I:** "Social-Discursive Analysis and Language Didactics". Máster ofiziala: Language Acquisition in Multilingual Contexts. UPV/EHU. Curso 2012-2013. 3 kreditu.
- **Manterola. I:** "Hizkuntza ukipena" Máster ofiziala: UPV/EHU. Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza Masterra. Ikasturtea 2012-2013. 3 kreditu.

3.2.2. Katedrak antolatutako ekitaldiak

- 2013ko irailaren 4-5-6. Hizkuntzaren Jabekuntzaren VII. Nazioarteko Kongresua (AEAL), Bilbon. UPV/EHUko HIJE ikertaldearekin elkarlanean antolatua.
- 2013ko irailaren 23an jardunaldiak: "Frantsesaren didaktika Suitzako ikasle etorkinen harrera eskoletan / La didactique du français dans les classes d'accueil en Suisse francophone". Hizlariak: Jean-François De Pietro (IRDP, Neuchâtel) eta Marc Surian (Université de Genève). Letren Fakultatean, Vitoria-Gasteiz. UPV/EHUko HIJE ikertaldearekin elkarlanean antolatua.
- 2013ko urriaren 17an, Bartzelonan mahai ingurua: "Les llengües en la cooperació per al desenvolupament / Las lenguas en la cooperación para el desarrollo. Itziar Idiazabal eta UNESCO Etxeako Jessica Domínguezzen hitzaldia. Linguapax eta UNESCO Etxearekin elkarlanean.
- 2013ko urriaren 18an, Bilboko Alondegian mahai ingurua: "Hizkuntzak Garapenerako Lankidetzan / Las lenguas en la cooperación para el desarrollo". Andoni Barreña eta Belen Urangaren hitzaldiak. UNESCO Etxearekin elkarlanean.
- 2013ko azaroaren 21an, Berrizko Kultur Etxean Andoni Barreñaren hitzaldia. Berrizko udalarekin elkarlanean.

3.2.3. Katedraren parte hartzea hitzaldi eta kongresuetan

- **Itziar Idiazabal,** "Erdaldunen euskararekiko jarrerak" mahai-ingurua. Euskaltzaindia, Bilbao. Korrika 2013 AEKk antolatua. 2013ko otsailaren 14.
- **Manel Pérez-Cauarel,** Kepa Fdz. de Larrinoa Dr.-ren *Del delito cultural* liburuaren aurkezpen publikoan, "La diversidad lingüística mundial y la cooperación lingüística" hitzaldia. BBK-UPV/EHUko Esperientzia Gelak, Bilbao. 2013ko martxoak 13an.

- **Ibon Manterola**, "Étude comparée de l'apprentissage du basque dans deux contextes sociolinguistiques et didactiques contrastés". Curso sobre enseñanza de lenguas, Université de Genève, 2013ko apirilaren 23an.
- **Ibon Manterola** & Marta Kopinska, "Linguistic Autobiographies, Language Attitudes and Multilingualism among Secondary Education Students of the Basque Autonomous Community: Basque, Spanish and English in the Trilingual Framework". AESLA 2013, San Cristóbal de La Laguna, 2013ko apirilaren 18tik 20ra
- **Itziar Idiazabal**, mahai-ingurua, "Euskararen erabilera eta transmisioa", Leioa, Ondiztorrea. 2013ko ekainaren 12.
- **Ibon Manterola**, (sinposioko koordinatzailea eta hizlaria), **Itziar Idiazabal**, (hizlaria) & **Margareta Almgren**, (hizlaria) sinposioa, "Le développement bilingue dans trois contextes didactiques et sociolinguistiques contrastés". IV Congreso Internacional ISD, Université de Genève, 2013ko uztailaren 18.
- **Ibon Manterola & Itziar Idiazabal**, Diversidad de inputs y narraciones infantiles en euskera L1/L2: análisis de organizadores textuales", sinposioa: "La Influencia del Input en la Adquisición de Lenguas en Contextos Multilingües". VII Congreso Internacional AEAL, Bilbao, 2013ko irailaren 4tik 6ra.
- **Itziar Idiazabal**, hitzaldia: "The Normalization of the Basque Language: A Good Practice to Preserve Language Diversity". Bernardo Atxaga Chair, Graduate Center, City University of New York. 2013ko urriaren 7.
- **Itziar Idiazabal**, Adituen seminarioa, "Cultura: Nuevos Enfoques en la Agenda de Desarrollo Post-2015". UNESCO Etxeak antolatuta. Bilbao, 2013ko urriaren 23 eta 24.
- **Ibon Manterola** (antolatzailea) & **Ane Ortega** (hizlari nagusia), mintegia: Hizkuntzen trataera bateratua. Apraiz-Zumalabe Mintegia (Tratamiento integrado del lenguas. Seminario Apraiz-Zumalabe). Letren fakultatea, Vitoria-Gasteiz. 2013ko azaroaren 25.

3.3. Katedraren presentzia hedabideetan

2013an Katedraren presentzia asko hazi da hedabideetan, 2012arekin alderatuta, Katedrak berak hedabideetara iristeko egin duen lanari esker. Euskal Herriko hizkuntza aniztasunaren inguruko askotariko errealitateak ezagutarazteko helburuarekin egin da lan hau. Halaber, kanpoko adituak ere hedabideetan agertzea lortu du Katedrak 2013an. Hainbat ekitalditan presente egon da Katedra eta AEAL 2013 nazioarteko kongresua antolatu izanak ate asko zabaldu ditu hedabideetan. Euskal Herriko hedabide nagusietan agertu da kongresu honen eta Katedraren berri, baina baita estatuko eta Europako hedabide ugaritan ere (adibidez, Itziar Idiazabali elkarriketa egin zitzaion *Diario Público* eta *Diari Ara* egunkarietan eta zeresan handia eman zuten sare sozialetan).

Alde handiarekin, prentsa idatzian agertu da gehien Katedra 2013an. Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna eta LOMCE legearen harira, Itziar Idiazabali egindako elkarriketak argitaratu dituzte **Berria**, **Gara-Gaur8**, **UK Uribe Kostako Aldizkaria**, **Le Journal du Pays Basque**, **Diario Público** (Espainiar estatua), **Diari Ara** (Catalunya, País Valencià eta Balear Irlak), **Jornalet** (Okzitania: Catalunya, Frantziar eta Italiar estatuak), **Praza Pública** (Galizia), **Periódico Diagonal** (Espainiar estatua)

eta **El Diario** (Espainiar estatua). Iritzi artikuluak argitaratu dituzte Itziar Idiazabal eta Andoni Barreñak eta Katedraren jarduerari buruzko erreportajeak ere agertu dira honako medio hauetan: **Argia**, **Deia**, **Gara**, **El Correo**, **Diario de Noticias de Navarra**, **Diario de Noticias de Gipuzkoa**, **Sustatu.com**, **Berria**, **Diario Vasco**, **El País**, **ABC** eta **BIZKAIE!**.

Irratiari dagokionez, Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna aprobetxatuta, zuzeneko elkarrizketak egin zaizkie Itziar Idiazabal eta Andoni Barreñari **Radio Euskadiko Boulevard** saioan, eta **Onda Vascako Euskadi Hoy Magazine** saioan, eta Itziar Idiazabal elkarrizketatu zuten **Euskadi Irratiko Faktoria**-n. AEAL 2013 kongresuari esker ere hainbat elkarrizketa egin zitzaizkion Itziar Idiazabali: **Bizkaia Irratiko Lau Haizetara** saioan, **Radio Euskadi**-ko **Boulevard** saioan edo **RNE1**eko eguerdiko albistegian. Kongresu horren harira Andoni Barreña ere elkarrizketatu zuten **Radio Popular/Herri Irratiko Aquí te quiero** saioan.

Telebistan ere agertu da Katedra 2013an zehar. **Hamaika TB**ko **Gurean Gaur** saioak Itziar Idiazabali egindako elkarrizketa saio luzea eskaini zuen, LOMCE legearen eta honek estatuko hizkuntza gutxituengan izan dezakeen eraginaren harira. Idiazabal Lourdes de Leon (CIESAS, Mexiko) ikerlariarekin batera agertu zen **ETB1** eta **ETB2**ko albistegietan irailaren 4an, AEAL kongresuari eta hizkuntzaren jabekuntzari buruz hitz egiten. Azaroaren 13an Itziar Idiazabal **ETB1**eko **Tribuaren Berbak** saioan agertu zen (Kike Amunarriz soziolinguistak aurkezten du saioa). Arriskuan dauden hizkuntzei buruz hitz egin zuen, eta baita UNESCOk hizkuntza horien gainean egiten duten sailkapenaz ere.

Azkenik, nabarmendu behar da Katedrari esker, nazioarteko hainbat ikerlari ezagun **Berria** egunkarian, **Argia** aldizkarian eta **Radio Euskadi**-ko **La Mecánica del Caracol** saioan agertu zirela. Hauexek dira ikerlariak: Jürgen Meisel (University of Calgary eta Hanburgoko Unibertsitatea), Nancy Hornberger (Unibersity of Pennsylvania) eta Lourdes de León (CIESAS, Mexiko).

4. ARGITALPENAK

Amorrortu, E. (2012) "Talde estrategikoen euskararekiko jarrerak: gazte euskaldunak, erdaldunak eta euskaldun berriak / Las actitudes hacia el euskera de grupos estratégicos: los y las jóvenes vasco-hablantes, los y las no-vascohablantes y los y las neohablantes". *Actas del Congreso Marcos interpretativos de la realidad social contemporánea*. Universidad de Deusto. Bilbao: Universidad de Deusto, 43-56.

Barreña, A.; Ortega, A. & Amorrortu, E. (en prensa) "Current situation of Basque: fresh challenges in the view of achievements". *Towards a History of the Basque Language, II*. Monográfico de la revista *Mikroglottika*.

- Barreña, A. (2013) El euskara estándar y la variedad occidental: aproximación a la disponibilidad léxica de jóvenes vascohablantes occidentales. In Rudolf Muhr, Carla Amorós Negre, Carmen Fernández Juncal, Klaus Zimmermann Emilio Prieto and Natividad Hernández (eds.) (2013): *Exploring linguistic standards in non-dominant varieties of pluricentric languages / Explorando estándares lingüísticos en variedades no dominantes de lenguas pluricéntricas*. Frankfurt a.M. / Wien et. al.: Peter Lang Verlag.
- Barreña, A. y Almgren, M. (2013). Object-verb and verb-object in Basque and Spanish monolinguals and bilinguals. *International Journal of Bilingualism*, 17 (3), 337-356. *International Journal of Bilingualism* (2012), first published on April 26, 2012 as doi:10.1177/1367006912438993.
- Dolz, J. & Idiazabal, I. (eds.) (2013). *Enseñar (lenguas) en contextos plurilingües*. Bilbao: Servicio editorial de la Universidad del País Vasco /Euskal Herriko Unibertsitatea. ISBN: 978-84-9860-838-0.
- Ezeizabarrena, M.J. & Barreña, A. (2013) Etapas en el proceso de adquisición de las lenguas vasca y castellana por niños monolingües y bilingües. pp. 241-278. In J. Dolz & I. Idiazabal (eds.). *Enseñar (lenguas) en contextos multilingües*. Bilbao: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco.
- Idiazabal, Itziar (2012) Hizkuntza aniztasuna ondare gisa UNESCO-ren ekimenetan. Euskal Herritik begiratu bat. XVII Congreso de Estudios Vascos: *Gizarte aurrerapen iraunkorrerako berrikuntza = Innovación para el progreso social sostenible* - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2012. - P. 339-351. - ISBN: 978-84-8419-232-9
- Idiazabal, I., Garcia-Azkoaga, I & Larringan, L.M. (2012) (Coord.) *Ikastaria 18. Sekuentzia didaktikoak eta hizkuntzen curriculum: teoria eta praktika / Secuencias didácticas y currículo de lenguas: teoría y práctica* BIBLID. ISSN: 1137-4446, eISSN: 2255-1069.
- Idiazabal, I. & Dolz, J. (2013) "Diversidad lingüística y formación plurilingüe" (Introducción) in J. Dolz & I. Idiazabal (eds.) *Enseñar (lenguas) en contextos plurilingües*. Bilbao: Servicio editorial de la Universidad del País Vasco /Euskal Herriko Unibertsitatea-, 11-32. ISBN: 978-84-9860-838-0.
- Larringan, L.M. & Idiazabal I. (2012) Sekuentzia didaktikoa: ekintza didaktikoaren zutabe eta ardatz minimoki fidagarria, *Ikastaria 18*. ISSN 1337-4446 /eISSN 2255-1069, 13-44
- Manterola, I., Almgren, M. & Idiazabal I. (2013) Basque L2 development in immersion school settings, *International Journal of Bilingualism* 2013, 17: 375-391 ISSN: 1367-0069
- Manterola, I. & Almgren, M. (2013), "Las grandes líneas de progresión de los aprendizajes lingüísticos en la escolarización en euskera", in Dolz, J. & Idiazabal, I. (eds.), *Enseñar (lenguas) en contextos multilingües*. Bilbo: UPV/EHU.

- Manterola, I., Almgren, M. & Idiazabal I. (2012) L'usage de connecteurs dans les contes oraux en L1 et L2 chez des enfants bilingues basque-espagnols. In Régine Delamotte-Légrand & Mehmet-Ali Akinci (Eds.) *Recits d'enfants : Développement, genre, contexte*. Rouen: Presses Universitaires de Rouen et de l' Havre. ISBN:978-2-87775-579-5 /ISSN: 1292-1211, 329-352.
- Manterola, I., Almgren, M.& Idiazabal I. & (2012) "El aprendizaje del euskera en niños de origen inmigrante: influencia de la escuela y del entorno", in Rispaill, M., Jeannot C., Totozani M. Tomc S. (Ed.), *Esquisses pour une école plurilingue : Réflexions sociodidactiques*. Paris: L'Harmattan. ISBN: 978-2-296-99319-8, 200-218.
- Mecha, B., Barreña, A. y Mendizabal, M. (2013). Enberera hizkuntza Kolonbian: ahokotasunetik idazterako bidean. *BAT soziolinguistika aldizkaria* 86, 2013 (1), 159-175.
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Urla, J. eta Uranga, B. (en prensa) "Basque Linguistic Identity among New speakers of Basque" Ongoing research on New Speakers of Minority Languages, monográfico de la revista *International Journal of Sociology of Language*. O'Rourke, Ramallo y Pujolar (eds.).
- Ortega, A., Goirigolzarri, J., Amorrortu, E., Uranga, B., Urla, J. (en prensa) "Hizkuntza gutxituen hiztun berriak: euskaldunberriak ezagutuz", *Inguruak Aldizkaria*.